



# **Fiskalitate eta aurrekontuen 2018ko HEHko txostena**

Bestelako gizarte-politika posible eta beharrezkoa da Euskal Herrian. Zerga-politikak egituratzen eta baldintzatzen du gastu publikoa eta, ondorioz, baita beste politikak ere. Auzitan dagoena, interesak eta aberastasunaren banaketa.

Dena dela, politika alternatiboak eta bestelako fiskalitatea proposatze aldera, beharrezkoa da lehenik Hego Euskal Herriko zerga-sistema analizatzea, zenbat diru biltzen den, nork eta nola ordaintzen dituen zergak.

Ondoren gastua dator. Gizartearen beharrak asetzea helburua duten aurrekontuak eginez, edo gastu erregela eta Madrilen adosten diren gainontzeko mugak betez egindakoak.

Propaganda politikoa alde batera utzita, fiskalitatearen eta aurrekontuen argazkiak erakusten du egiten diren politikak sozialak ote diren eta erabaki horiek noren onerako hartzen diren.

Dokumentu honetan politika fiskalaren inguruan eta azken aurrekontuen azterketen txostenekin eginiko bilduma egingo dugu.

## **a) Diru-bilketa: gutxi eta bidegabea**

### **1.- Presio fiskalaren konparaketa Europa mailan**

Hego Euskal Herriko (HEH) fiskalitatea aztertzeko Europar Batasuneko zerga-sistemarekiko konparaketa egin beharra dago. Horrek emango digu aukera jakiteko nazioarteko inguruan non kokatuta gauden eta erabakitzeo fiskalitatearen atal bakoitzean zer nolako aukerak ditugun.

Lehen atal honetan presio fiskalari helduko diogu, hots, Administrazio guztiek zergatan barne produktu gordinaren biltzen duten portzentajea.

HEHari buruz dagoen azken datua 2015 urteari dagokio; presio fiskala BPGaren %31ekoa izan zen (hor sartzen dira zerga itunduak, udal-zergak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak).

Europa mailan batez besteko presio fiskala 2015ean %38,7koa izan da, Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoaren arabera. Beraz, HEHarekiko aldea BPGko 7,7 puntukoa da.

BPGko 7,7 puntuko alde horrek esan nahi du 2015ean HEHko presio fiskala EB-28ko berbera izan balitz 6.727,9 milioi euro gehiago bilduko ziratekeela.

Gainera EB-28an soilik bost estatuk dute presio fiskal arinagoa: Irlanda (%23,9), Errumania (%28), Bulgaria (%29), Lituania (%29,1) eta Letonia (%29,2).

Bestalde, 23 estatutako presio fiskala handiagoa da; areago, espainiar Estatuko presio fiskala ere handiagoa da (%33,9), eta Danimarkarekiko diferentzia, hots, presio fiskalik handiena duen estatuarekiko (%46,6), 15,6 puntukoa da (beraz, presio berarekin HEHn 13.733,9 milioi euro gehiago bilduko lirateke).

2008 eta 2015 bitarteko bilakaerari erreparatuz gero, HEHn presio fiskalak BPGarekiko 0,2 puntu galdu ditu (%31,2tik %31ra). Aitzitik, EB-28ko batez besteko presio fiskala 0,8 puntu gehitu da (%37,9tik %38,7ra).

Presio fiskala lurraldeka analizatuta, EAEn 2015ean BPGaren %31,4ean zegoen, hots, batez besteko maila europarra baino 7,3 puntu beherago. Horrek esan nahi du EB-28ko presio fiskal bera izan balitz bertan 5.052,8 milioi euro gehiago bilduko ziratekeela.

Bilakaerak erakusten du EAEn presio fiskala 0,3 puntu arindu dela 2008 eta 2015 bitartean, alegia,

urtean 207,6 milioi euro.

Nafarroan presio fiskala 2015ean %29,8koa zen. Europar batez besteko mailarekiko aldea BPGaren 8,9 puntukoa da. Beraz, Nafarroak europar batez besteko presio fiskala izan balu 1.675,1 milioi euro gehiago bilduko ziratekeen.

Nafarroako bilakaerari dagokionez, 2008 eta 2015 bitartean presio fiskala BPGaren 0,3 puntu gehitu da. Igoera hau batez ere gertatu da BPGa epealdi horretan zertxobait arindu delako.

*Presio fiskalaren bilakaera (%/BPG). EB-28, 2008-2015*

	<b>2008</b>	<b>2010</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>
Danimarka	44,8	45,0	46,5	49,3	46,6
Frantzia	42,5	42,1	45,4	45,7	45,9
Belgika	43,6	43,1	45,7	45,4	45,1
Finlandia	41,2	40,8	43,6	43,8	44,0
Austria	41,8	41,3	42,9	43,1	43,8
Suedia	44,0	43,2	42,9	42,6	43,3
Italia	41,2	41,5	43,5	43,2	43,2
Hungaria	39,6	37,4	38,1	38,2	39,1
<b>EB-28</b>	<b>37,9</b>	<b>37,2</b>	<b>38,8</b>	<b>38,8</b>	<b>38,7</b>
Alemania	37,7	36,7	38,2	38,3	38,6
Luxemburgo	37,2	37,6	38,5	38,1	37,8
Holanda	36,4	36,1	36,5	37,5	37,8
Kroazia	36,8	36,1	36,6	36,8	37,6
Eslovenia	36,6	37,1	37,0	36,7	36,8
Grezia	31,8	32,0	35,5	35,9	36,4
Portugal	31,7	30,4	34,1	34,3	34,5
Errep. Txekiarra	33,1	32,5	34,8	33,9	34,3
Estonia	31,4	33,3	31,7	32,6	33,9
Espainiar Est.	32,2	31,3	33,2	33,8	33,9
Malta	32,1	31,2	32,4	34,0	33,7
Erresuma Batua	35,1	33,5	33,2	32,8	33,3
Zipre	34,8	31,9	31,5	33,2	33,0
Polonia	34,1	31,4	31,9	32,0	32,5
Eslovakia	29,0	28,0	30,1	31,1	32,2
<b>EAE</b>	<b>31,7</b>	<b>31,0</b>	<b>31,6</b>	<b>31,8</b>	<b>31,4</b>

HEH	31,2	30,6	31,1	31,3	31,0
Nafarroa	29,5	28,9	29,3	29,5	29,8
Letonia	27,8	27,9	28,6	29,0	29,2
Lituania	30,6	28,3	27,1	27,6	29,1
Bulgaria	30,7	26,0	28,2	28,4	29,0
Errumania	27,6	26,2	27,3	27,5	28,0
Irlanda	29,0	27,9	28,7	29,1	23,9

*Iturriak: Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoa, Gizarte-Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, Nafarroako Gobernua, Nastat, Eustat, Eusko Jaurlaritza*

## **2.- Zerga itunduak EAE-n. Bilketa eta presio fiskala**

### **2.1.- Diru-bilketa EAEn**

Zerga itunduen bilketa (hots, Foru Ogasunek kudeatzen dituztenena) 2017ko ekitaldian 14.473,9 milioi eurokoa izan da, 2016an baino 1.523,2 milioi gehiago (%11,8ko igoera). Diru-bilketaren bilakaera 2007tik hona aztertuz gero, ikusiko dugu 701,1 milioi euro gehiago bildu direla. Dena den, kontuan izan behar da 2017an bildutako 600 milioi euro azken urteetako Kupoaren likidazioari dagozkion aparteko diru-sarrerak izan direla. Beraz, 2017ko diru-bilketa 2007koaren antzekoa dela esan daiteke, eta hau ezin da izan arro sentitzeko modukoa.

#### *Zerga itunduen bilketa (milioi eurotan). EAE, 2007-2017*

2007	2010	2013	2016	2017
13.772,1	11.700,0	11.752,1	12.950,7	14.473,9

*Iturria: Eusko Jaurlaritza*

2017ko diru-bilketa aztertuz gero, zuzeneko edo zeharkakoak bereizita, ikusiko dugu zergadunen ahalmen ekonomikoa aintzat hartzen ez dituztenek (zeharkakoek) gero eta pisu handiagoa dutela. Hots, fiskalitateak gero eta gutxiago aintzatesten du ahalmen ekonomikoa:

- Zeharkako zerga bidez 7.751,2 milioi euro bildu dira, hots, guztirako kopuruaren %53,6. Beraz, zeharkako zergak 2016arekiko %16,4 hazi dira, eta 2007 urtearekiko %11,6. Halere, 2007an bildutako diru guztiaren %50,4tik azken aldiko %53,6raino pasa dira (3,2 puntu gehiago).
- Zuzeneko zergekin 6.615,9 milioi euro bildu dira, guztizkoaren %45,7a. 2016an baino %7,2 gehiago bildu da, eta 2007an baino %1,4 gutxiago. Zeharkako zergekin ez bezala, zuzeneko zergak gero eta zati txikiagoa dute bilketa osoan. 2007tik hona bilketaren %48,7tik %45,7ra jaitsi dira (3 puntu).
- Gainontzeko zerga eta tasetan 106,8 milioi euro bildu dira, hots, guztizkoaren %0,7.

#### *Zerga itunduen bilketa (milioi euro, %/guztizkoa eta % aldea). EAE, 2007-2017*

	Milioi €	%	2007rekiko % aldea
ZEHARKAKO Z.	7.751,2	%53,6	%11,6

ZUZENEKO Z.	6.615,9	%45,7	- %1,4
GAINERAKOA	106,8	%0,7	- %9,9
GUZTIZKOA	14.473,9	%100,0	%5,1

*Iturria: Eusko Jaurlaritza*

Jakingarria da analizatzea zuzeneko zerga bilketaren banaketa:

- Laneko PFEZarekin 4.767,3 milioi euro bildu dira, 2016an baino %3,7 gehiago (169,9 milioi gehiago). Beraz, zuzeneko bilketaren %72,1 laneko errenten diru-bilketa izan da. 2007tik hona %18 hazi da.
- Enpresa, profesional eta kapital errentetatik 1.563 milioi euro bildu dira, hots, 2016an baino %10,8 gehiago. Zuzeneko diru-bilketaren %23,6 esan nahi du horrek. Laneko errenten bilakaera positiboa ez bezala, errenta hauekin bildutakoa azken hamar urteetan %38,3 murriztu da. Bere osaera honakoa izan da:
  - Sozietateen gaineko Zerga bidez 1.111,7 milioi euro bildu dira, 2016an baino %16,8 gehiago; zuzeneko zergen bilketan %16,8ko pisua du. 2007rekiko konparaketa eginez gero, 922,3 milioi euro gutxiago bildu direla ikus daiteke (%45,4 gutxiago), orduan 2.034 milioi euro bildu ziren.
  - Enpresa, profesional eta kapitalen PFEZak 451,3 milioi euroko diru-sarrerak ekarri ditu, 2016an baino %10,5 gehiago eta zuzeneko zergen sarreren %6,8. Errenta hauetatik 2007an baino %9,9 gutxiago bildu da.

Zuzeneko zerga itunduetako bilketa zerga motaren arabera; egitura eta bilakaera. EAE, 2007-2017

	Milioi €	%	2016ekiko %	2007rekiko %
LANEKO PFEZ	4.767,6	72,1	3,7	18
- SOZIETATE ZERGA	1.111,7	16,8	10,9	-45,4
- ENPR., PROF., KAPIT. PFEZ	451,3	6,8	10,5	-9,9
ENPR.,PROF.,KAP.ERRENTAK (*)	1.563	23,6	10,8	-38,3
GAINERAKOAK	285,3	4,3	78,2	-324,2
ZUZENEKO Z.GUZTIZKOA	6.615,9	100	7,2	-1,4

*Iturria: Eusko Jaurlaritza*


2017an diru-bilketan izandako hazkundearen zati handiena BEZari dagokio. Eta hazkunde honen arrazoi nagusia Estatuarekin egindako akordioa da, lehen aipatutako Kupoaren azken urteetako likidazioa biltzen duena.

Hau da, 2017an 6.036,3 milioi euro bildu dira BEZarekin, aurreko urtean baino 1.021,9 milioi euro

gehiago (%20,3 gehiago), eta horietatik 936,2 milioi euro estatuarekin egindako akordiotik datoz. Beraz, diru-bilketaren hazkundearen %61,4 (hau da, hazkunde osoa 1.523,2 milioi izan dira, eta hauetatik 936,2 milioi), BEZaren akordioari dagozkio.

BEZaren bilketan emandako hazkundeari laneko errentek pasa den urtean baino 169,9 milioi euro gehiago bildu dituztela gehitzen badiogu, eta Zerga Berezietan emandako akordioarengatik 10,2 milioi euro gehiago bildu direla kontuan izanda, hazkunde osoaren %66,6a zeharkako zergen akordioagatik eta laneko errentek gehiago ordaindu izanagatik ematen dela ikus dezakegu (1.523,3 milioietatik 1.016,3 milioi)

#### Diru-bilketaren hazkundera zergen arabera. EAE 2016-2017



Iturria: Eusko Jaurlaritza


## 2.2.- Presio fiskalaren bilakaera EAEko zerga itunduetan

Zerga itunduen presio fiskalaren bilakaera analizatuz gero ondorioak atera ditzakegu diru-bilketarekin zer gertatu den, BPGaren bilakaera aintzat hartuaz.

Ondoko grafikoan ikus daiteke EAEko zerga itunduen presio fiskala 2007koa baino apalagoa dela: Orduan %20,9koa zen, eta 2017an %19,8koa izan da.

Azpitarratzekoa da zeharkako zergak 2007tik BPGaren %0,2 hazi direla (%10,4etik %10,6era), zerga zuzenak BPGaren %0,9a galdu duten bitartean (%10etik %9,1era), Sozietateen gaineko Zergaren diru-bilketaren jaitsieraren ondorioz.

#### EAE-ko zerga itunduen presio fiskalaren bilakaera 2007-2017 (% BPG)




Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat

EAEko zerga itundu nagusien presio fiskala aztertuz gero, ondoriozta daiteke zeharkako zergen bilketa hainbeste murriztu izanaren arrazoia. Lan-errentek jasaten duten presio fiskala 2007 eta 2017 bitartean hazi egin da (BPGaren %6,1tik %6,5eraino), eta aldiz sozietateen gaineko presio fiskala gainbehera joan da (BPGaren %3,1tik %1,5eraino).

Zeharkako zerga nagusia den BEZaren presio fiskalari dagokionez, BPGaren 2007ko %7,3tik 2017ko %8,3ra pasa da.

#### EAE-ko zerga nagusien bilakaera. 2007-2017 (% BPG)



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat

### 2.3.- Zergen aitortpena

#### a) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga (PFEZ)

PFEZean 2014 ekitaldian (informazio homogeneoa daukagun azken urtea) aitortutako errentaren %92,4 lan-errentetatik dator, eta %6,5 besterik ez enpresa, profesional eta kapital errentetatik.

Alegia, PFEZean aitortzen den ia sarrera guztiak lan-errentetakoak dira.

*Etekinen pisu erlatiboa PFEZ-ean (%). EAE, 2014*

LANA	ENPR., PROF., ART.	GAINERAKOAK
92,4	6,5	1,1

*Iturria: Euskal Ogasunaren Urteroko Txosten Integratua*

Lan-errentetan aitortutako batez besteko sarrerak 23.522 eurokoak izan ziren 2014 ekitaldian, hots, jarduera ekonomikoengatik aitortu zirenak baino 9.867,2 euro gehiago (hautetan 13.654,8 euro izan zen batez bestekoa).

2007tik bilakaerak adierazten du batez besteko laneko errenta aitortua 2.247,6 euro hazi dela; aldiz, jarduera ekonomikoetan batez beste aitortu den errenta 513,9 euro handiagoa izan da. Honek esan nahi du bien arteko aldea 1.733,7 euro handitu dela.

*PFEZ-ean aitortutako batez besteko errenta (€). 2008-2013*

	LANA	JARDUERA EKONOMIKOAK	DIFERENTZIA
2007	21.274,44	13.140,9	8.133,5
2008	22.502,8	12.656,0	9.846,8
2009	22.640,3	12.226,5	10.413,8
2010	22.632,4	12.109,6	10.522,8
2011	23.038,6	11.944,3	11.094,3
2012	22.854,6	11.375,3	11.479,3
2013	23.309,1	12.983,1	10.326,0
2014	23.522,0	13.654,8	9.867,2
2007-2014	2.247,6	513,9	1.733,7

*Iturria: Euskal Ogasunaren Urteroko Txosten Integratua*

PFEZean sexuaren arabera aitortutako batez besteko errenta aztertuz gero, ikusten da soldata-arrakala 7.336 eurokoa dela lan-errentetan, eta 2.190,6 eurokoa jarduera ekonomikoetan. Gizonek lan-errentetan batez beste 26.680,4 euro aitortzen dituzte, eta emakumeek, berriz, 19.344,4 euro. Jarduera ekonomikoetan gizonek 14.455,9 euroko sarrerak aitortzen dituzte, eta emakumeek, 12.265,4 eurokoak.



*PFEZ-ean aitortutako batez besteko sarrerak (€) sexuka (2014)*

	LANA	JARDUERA EKONOMIKOAK
GIZONEZKOAK	26.680,4	14.455,9
EMAKUMEAK	19.344,4	12.265,4
DIFERENTZIA	7.336,0	2.190,6

*Iturria: Euskal Ogasunaren Urteroko Txosten Integratua*

**b) Sozietateen gaineko Zerga**

Sozietateen gaineko Zergaren ezaugarria da modu asko dagoela enpresek azkenean ordaintzen duten zenbatekoa murrizteko. Horregatik, oso desberdinak dira tasa nominala (arauak hasieran ezartzen duena) eta benetako tasa (azkenean ordaintzen dena). Sozietateen gaineko Zergaren batez besteko tasa nominala (enpresa motaren arabera tasak desberdinak dira) 2014ko ekitaldian %24,4koa izan da (ekitaldi horri buruzko datuak dira dauzkagun azkenak). Baina tasa hau 5,6 puntu jaitsi da salbuespen, kenkari, eta beste mekanismo batzuren ondorioz; beraz, EAEn sozietateek benetan ordaindu duten tasa %18,8koa izan da.

Azken urteko bilakaerak adierazten du tasa nominala 0,6 puntu murriztu dela, eta aitzitik benetako tasa 2,6 puntu igo da. Azken urteetako bilakaerari erreparatuta, ikusten da jaitsiera handia izan dela: 5 puntu tasa nominalean (2007ko %29,4tik 2014ko %24,4era), eta benetako tasan 2007ko %17,1tik 2014ko %18,8ra pasa da.

*Sozietateen zergan tasa nominalak eta benetakoak izan duten bilakaera. 2007-2014 (%)*

	2007	2010	2013	2014
Tasa nominala	29,4	26,7	25	24,4
Benetako tasa	17,1	16,1	16,2	18,8

*Iturria: Euskal Ogasunaren Urteroko Txosten Integratua*

Azmiarratzekoa da Ogasunek ezartzen duten araudia enpresentzat askoz onuragarriagoa dela Estatuko araudia baino. Ogasunetan egiten diren aitorten guztien batz-beste-tasa nominala %24,4koa da, eta bentakoa %18,8koa.

Baina tasa nominala eta benetakoa enpresei aitortzea egiterako garaian ezartzen zaien araudiaren arabera aztertzen badugu (nahiz eta EAEn aitortzea egin, araudi ezberdina ezartzeko aukera dagoelako), aldea oso handia dela ikus dezakegu. Araudi orokorra (Estatukoa) ezartzen zaien sozietateek %29,1eko tasa nominala dute, eta %24eko benetako tasa. Aldiz EAEn foru-araudiaren arabera aitortzea egiten duten sozietateek %23,5eko tasa nominala dute, eta %17,8ko benetako tasa. Hau da, enpresek Ogasunen araudia ezarriz, araudi orokorrarekin (Estatu osokoa, Nafarroakoa izan ezik) baino 6,2 puntu gutxiago ordaintzen dute.

Sozietateen zergan tasa nominalak eta benetakoak EAE ezarritako araudiaren arabera. 2007-2014 (%)

	Bataz-besteko tasa EAEn	Foru araudia ezarriz	Araudi orokorra ezarriz
Tasa nominala	24,4	23,5	29,1
Benetako tasa	18,8	17,8	24

*Iturria: Euskal Ogasunaren Urteroko Txosten Integratua*

Gogoratu beharra dago Sozietaten gaineko Zerga soilik enpresa eta sozietateek lortu dituzten etekinei ezartzen zaiela; ondorioz, etekinik ez dutela izan edota galeretan daudela diotenek ez dute zerga hau ordaintzen.

Zerga honetan gertatzen den iruzurraren adierazgarri, sozietateen erdiak eta gehiagok galerak aitortzen dituzte, eta ordaintzen duten enpresa eta sozietateen %76,8ak, galerak edota 6.000 eurotik beherako etekinak. Agerikoa da datuok ez daukatela zerikusirik errealitatearekin.

Sozietateen gaineko Zerga. aitorten kopurua. EAE, 2014

Emaidza	Aitorten kopurua	Aitortzenen %
Negatiboa	36.627	53,0%
0 – 6.000	16.409	23,8%
6.000 – 60.000	9.136	13,2%
60.000 – 300.000	4.020	5,8%
300.000 – 600.000	860	1,2%
> 600.000	2.019	2,9%
GUZTIZKOA	69.071	100%


*Iturria: Euskal Ogasunaren Urteroko Txosten Integratua*

Honen ondorioz, Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala Europako azken postuetan dago.

Europar sozietate zergak BPGaren gain duen pisua %2,5koa da bataz-beste. EAEn duen pisua %1,5koa da, hurrengo txikiena izanik Lituania eta Esloveniarekin bat (Nafarroan sozietate zergak duen pisua soilik %1,2koa da, Europa osoko baxuena).

Kontrako lekuan Malta eta Zipre daude, %6,7 eta %5,9ko ehunekoekin. Alemanian, Estatu espainiarrean, Estatu frantziarrean edota Erresuma Batuan Europar Batasuneko pisu ia berbera du sozietate zergak (soilik ehuneko hamarreneko baten ezberdintasuna baitago estatu horietan).

Sozietate zergaren pisua BPGn (%) Europar 2015ean



Iturria: Eurostat, Eustat, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua

Sozietate zergak Europan duen presio fiskalarekin berdintzeko, EAEn 669 milioi euro gehiago bildu behar dira urtean sozietate zerga bidez, eta Nafarroan 234 milioi euro gehiago.

### **3.- Nafarroako zerga hitzartuak. Diru-bilketa eta presio fiskala**

#### **3.1 Nafarroako diru-bilketa**

Nafarroan zerga hitzartuen bidez 3.682,6 milioi euro bildu dira 2017. urtean, 2016an baino 432,9 milioi euro gehiago (% 13,3 gehiago).

Azken urteetako bilakaera aztertzen badugu, diru-bilketa handiena izandako urtea dela ikus dezakegu, 2007koa izanik bigarren handiena (orduan baino 305,2 milioi euro gehiago bildu dira, 3.377,4 milioi bildu zirelarik), Nafarroako Gobernuak esan duen bezala.

#### *Zerga hitzartuen bilakaera (milioi €). Nafarroa, 2007-2017*

2007	2010	2013	2016	2017
3.377,4	2.801,3	2.907,1	3.249,7	3.682,6

*Iturriak: Nafarroako Gobernua, Nastat*

Diru-bilketaren azterketa zehatzagoa egiten bada zerga zuzenak eta zeharkako zergak banatuz, ondorengoa ikusi daiteke:

- Zeharkako zergen diru-bilketa 1.974,6 milioi eurotako izan da, guztiaren % 53,6a. Zeharakako zergen diru-bilketa 2007tik % 27,4 hazi da (425,2 milioi euro gehiago). Hau dela eta, zeharkako zergak diru-bilketa guztiaren % 45,9a izatetik % 53,6a izatera pasa dira. Azken urtean aldea asko handitu da, izan ere 2016an zeharkako zergak guztiaren %52,6a suposatu zuten, 2017an baino puntu bat gutxiago.
- Zuzeneko zergen bitartez 1.676 milioi euro bildu dira 2017an, guztiaren % 45,5a. Zuzeneko zergen bilketa % 6,2 jaitsi da 2007tik 2017ra, 117,9 milioi euro gutxiago bilduz. Honek zuzeneko zergak guztiaren % 53,1 izatetik % 45,5 izatera ekarri du. Azken urtean zuzeneko zergek zama handia galdu dute, diru-bilketa osoaren %46,5a biltzetik %45,5a biltzera pasaz.
- Gainontzeko bilketa (tasak, zigorrak, atzerapenak...) 32 milioetako izan da, guztiaren % 0,9a.

#### *Hitzartutako zergen bilketa (milioi €, guztiaren % eta aldaketa %). Nafarroa, 2007-2017*

	2016		2007-2017
	Milioi €	%	Ald. %
Zeharkako zergak	1.974,6	53,6%	27,4%
Zuzeneko zergak	1.676,0	45,5%	-6,6%

Gainontzekoa	32,0	0,9%	-6,2%
Guztira	3.682,7	100,0%	9,0%

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

Zuzeneko zergen osaerak ondorengoa adierazten du:

- PFEZaren bidez bildutakoa 1.177,6 milioi euro izan da, zuzeneko zergen bitartez bildutakoaren % 70,3a. Honen bitartez bildutakoa % 5,5 hazi da azken urtean, eta % 24,5 milioi 2007arekin alderatuta (orduan 945,7 milioi bildu ziren). Hau da, zerga zuzenen bitartez bildutako 10 eurotik 7 laneko errentek ordainduak dira.
- Enpresa, profesional eta kapital errentek 386,4 milioi euro ordaindu dituzte, zuzeneko zergen %23,1a. Errenta mota hauen bilketa % 13,4 hazi da azken urtean, baina % 48a jaitsi da 2007tik. Errenta hauen bilketaren osagaiak aztertzean, ondorengoa ikusi dezakegu:
  - Sozietateen gaino Zergak 256 milioi euro bildu ditu 2017an, zerga zuzenen % 15,3a. Azken urtean zerga honen bidez bildutakoak puntu bat egin du gora, baina 2007arekiko aldea %56,88ko jaitsiera da (593 milioi euro biltzetik 256 milioi euro biltzera pasa da), hau da, enresek 2007an baino 337 milioi euro gutxiago ordaintzen dituzte.
  - Enpresa, profesional eta kapitala errentei, PFEZren bitartez jasotakoa 130,4 milioi euro izan da, zuzeneko zergen %7,8a. Azken urtean % 4,6 egin du gora bilketa honek, baina 2007arekin alderatuta % 13,5 jaitsi da.

Diru-bilketaren bilakaeraren inguruan ateratako beste ondorio bat da hazkundera lan errentei bildutakoa handitu delako izan dela. Azken hamarkadan lan errentek ordaindutakoa %24,5 hazi da, enpresek ordaintzen dutena % 56,8 jaitsi den bitartean, eta enpresa eta profesionalen errentei bildutakoa % 13,5 jaitsi den bitartean. Desberdintasunak handitzen ari direla erakusten duen beste datu bat da.

*Hitzartutako zuzeneko zergen bilketa. Zerga, estruktura eta bilakaera. Nafarroa, 2007-2017*

	2017		2017-2007
	Milioi €	%	Ald. %
Laneko errenten PFEZ	1.177,6	70,3	24,5

- Sozietateen gaineko zerga	256,0	15,3	-56,8
- Enpr., Prof. eta Kap. PFEZ	130,4	7,8	-13,5
Enpr., Prof eta Kap. errentak	386,4	23,1	-48,0
Gainontzekoak	-685,0	-40,9	37,2
Zuzeneko zergak guztira	1.676,0	100	-6,6

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

### **3.2. Nafarroako hitzartutako zergen presio fiskalaren bilakaera**


Hitzartutako zergen presio fiskala BPGaren % 18,4koa izan da Nafarroan 2017an. Hau da, ekonomian dauden 100 eurotik 18,4 hitzartutako zergen bitartez bildu dira.

Ondorengo grafikoan ikusi daitekeen moduan, presio fiskala % 1,7a igo da azken urtean, 2007tik hona % 0,2 jaitsi den bitartean.

Zeharkako zergak 1,1 puntu igo dute presio fiskala azken urtean, BPGaren % 9,9a, 2007an bezala.

Zuzeneko zergen presio fiskala BPGaren % 8,4koa izan da, 2016an baino 0,6 puntu altuagoa eta 2007an baino 0,1 puntu txikiagoa.

*Hitzartutako zergen presio fiskalaren bilakaera Nafarroan, 2007-2017 (BPGaren %)*




*Iturria: Nafarroako Gobernua, Nastat*

Zerga nagusienen presio fiskalaren bilakaera ezberdina izan da azken urteetan:

- BEZak BPGaren % 6,8ko presio fiskala izan du 2017an, 2016an baino 0,5 puntu gehiago eta 2007an baino 1,6 puntu gehiago.
- PFEZaren laneko errentek BPGaren %5,9ko presio fiskala izan dute 2017an, 2016an baino 0,2 puntu gehiago eta 2007an baino puntu 1 gehiago.
- Bestalde, Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala asko jaitsi da, 2007an BPGaren % 3,3an zegoen bitartean, 2017an BPGaren % 1,3an kokatu baita.

Zerga nagusienen presio fiskalaren bilakaera Nafarroan, 2007-2017 (BPGaren %)



Iturria: Nafarroako Gobernua, Nastat

### 3.3. Zergen aitortpena Nafarroan

#### a) PFEZ

Laneko errentak jarduera nagusi gisa aitortzen dituztenek bana beste 20.923,3 euroko errenta aitortu zuten PFEZean 2016an; enpresa jarduerak aitortzen dituztenek, aldiz, 14.934,4 euro. Hau da, laneko errenta aitortua, batez beste, ia 6.000 euro handiagoa da errenta enpresarialek batez beste aitortu dutena baino.

Datu horiek dagozkie PFEZean aitortzen den errendimendu nagusiari; horrenbestez,

estatistika horretan ez dira sartzen osagai bat baino gehiago dituzten pertsonen errendimenduak (esate baterako, errenta enpresarialak eta lanekoak, edo profesionalak, kapitalekoak...).

PFEZean batez beste aitortu den errenta (€). Nafarroa, 2008-2016

	Laneko errendimenduak	Enpresarialak
2008	21.291,7	14.946,9
2009	21.072,7	13.405,3
2010	20.812,8	13.080,3
2011	21.005,6	13.185,7
2012	20.531,5	12.758,1
2013	20.590,1	13.226,6
2014	20.440,8	13.556,0
2015	20.711,2	14.220,1
2016	20.923,3	14.934,4

*Iturria: Nafarroako Ogasuna*

PFEZean batez beste aitortuako errenta sexuaren arabera aztertzen badugu, ikus dezakegu soldata arrakala 6.799,7 eurokoa dela laneko errentak aitortzen dituztenen artean. Gizonezkoek batez beste 23.618,8 euro aitortzen dituzte, eta emakumeek, aldiz, 16.819,1 euro.

PFEZean aitortutako batez besteko errenta (€) sexuaren arabera (2016)

	Laneko errendimenduak
Gizonezkoak	23.618,8
Emakumeak	16.819,1
Diferentzia	6.799,7

*Iturria: Nafarroako Ogasuna*

**b) Sozietateen gaineko zerga**

Sozietateen gaineko zergak pertsona juridikoen jarduera ekonomikoa zergapetzen du, eta etekinak daudenean baizik ez da ordaintzen.



Zerga honek aldaketa asko izan ditu, beti enpresek ordaindu beharreko zenbatekoa murriztera bideratuak. Horrela, legea 1996an egin zenean, enpresa guztien tasa nominala % 35 izan zen, baina orain tasa orokorra % 28koa da. Aldiz, enpresa txikiei % 23ko tasa ezartzen zaie, eta mikroenpresei %19ko tasa.

Zergen tasak (%) Sozietateen gaineko Zerga

	1996	2016
Orokorra	35	28
Enpresa txikiak	35	23
Mikroempresak	35	19

*Iturria: Sozietateen gaineko Zergaren 24/1996 Foru Legea eta 26/2016 Foru Legea*

Hau guztia kontuan hartua, batez besteko tasa % 26,6ko izan da 2016an (argitaratutako azken datua), azken urtean 2,2 puntu hazi ondoren.

Hala ere, araudiaren diseinuak berak ahalbidetzen du enpresek azkenean tasa apalago bat egiazki ordaintzea. Horrela, 2016an, % 14,7a izan da, hau da, batez besteko tasa nominala baino 11, puntu gutxiago.

Batez besteko tasa eta egiazko tasa (%) Sozietateen gaineko Zerga 2009-2016

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Batez besteko tasa	25,7	27,4	27,5	25,8	28,0	28,5	24,4	26,6
Egiazko tasa	14,3	15,6	15,3	14,5	16,5	16,3	13,5	14,7

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

#### **4.- Politika fiskalaren inguruko ondorioak**

Txosten honetako ondorioak aski argiak dira. Diru-bilketa urria da eta ez da taxuz egiten:

1. Hego Euskal Herriko presio fiskala (BPGaren %31; %31,4 EAEn eta %29,8 Nafarroan) Europar Batasuneko azken postuetan dago, batez besteko mailatik askoz beherago (%38,7 EB mailan), baita espainiar Estatuan baino okerrago (BPGaren %33,9). EB mailan dagoen batez besteko diru-bilketa mailara iristeko urtean 5.052 milioi euro gehiago bildu beharko litzateke EAEn, eta 1.675 milioi Nafarroan.
2. Foru Aldundien eta Nafarroako Ogasunaren zerga-politika injustua eta antisoziala da:
  - Diru gehiago biltzen dute zeharkako zergekin (errenta maila aintzat hartzen ez dutenekin) zuzenekoekin baino (diru-sarrera edo

- etekin arabera ordainarazten dutenekin).
- Azken urteetan injustizia fiskala areagotu egin da. Batetik, zuzeneko zergetan lan-errentei askoz karga handiagoa leporatzen zaielako enpresa- eta kapital-errentei baino; bestetik, aldea urtez urte handiagoa delako:
    - EAEn lan-errentek ordaintzen dituzten zergak 2007tik hona %18 hazi dira; enpresa- eta kapital-errentenak, berriz, %9,9 erori dira. Deigarria da Sozietateen Zergan gertatu den jaitsiera: 2007an 2.034 milioi bildu ziren, eta 2017an, 1.111,7 milioi.
    - Nafarroan berdin gertatzen da. Lan errentek zergetan ordaintzen dutena % 24,5a igo da 2007tik, enpresa eta kapitalaren errentek ordaintzen dutena % 13,5 jaitsi den bitartean. Sozietateen gaineko Zergaren jaitsiera izugarria izan da hemen ere, 2007an 593 milioi euro biltzetik 2017an 256 milioi euro biltzera pasa baita.
  - Lan-errentek PFEZean aitortzen diren errenten %92,9 osatzen dute EAEn, eta % 91,8 Nafarroan. EAEn Zerga honetan lan-errentek aitortutako batez besteko sarrerak 23.522 euro dira, hau da, enpresa- eta lanbide-jarduerak dituztenen ia bikoitza (13.654,8 euro). Aldea azken urteetan handitu egin da.
  - EAEko enpresen %76,8ak Sozietateen Zergan galerak edota urtean 6.000 eurotik beherako etekinak aitortzen dituzte. Datu honek ere agerian uzten du soldatapekoenak ez diren errentetan dagoen iruzur fiskal izugarria.
  - EAEko Sozietateen Zergako benetako tasa (hots, aitortutako etekinaren zein zati ordaintzen den zergan) %18,8koa da, tasa nominala baino askoz txikiagoa. Euskal araudiaren baitan zergak ordaintzen dituzten enpresek estatuko araudiaren pean daudenean baino tasa txikiagoa dute.

Fiskalitatearen inguruko eztabaidan pentsa arazi nahi da enpresak erakartzeko edota lehiakortasuna hobetzeko tresna izan behar dela. Baina argudio hau faltsua da. Sozietateen zerga dagoen moduan (txosten honetan aipatutakoak, eta EB guztiko presio fiskalik txikiena duena), mezu horretan tematzeak gauza bakarra esan nahi du: zuritzen jarraitu nahi da zerga-politika antisoziala, patronalaren interesen zerbitzura dagoena.

Fiskalitateak bi eginkizun nagusi ditu: behar den gastu publiko maila finantzatzeko beste baliabide bildu, eta nork zenbat ordaintzen duen modu zuzenean finkatu. Egungo egoera (zergapetze apala, iruzurra...) errotik aldatu behar da, inola ere; kontrako jarreraren xedea da enpresek eta kapitalek zergarik ez ordaintzea.

Iruzur fiskalaren jazarpena funtsezkoa da, eta gehiago ez egitea justifikatzeko esaten da ez dagoela baliabiderik. Horixe eskatzen du ELAk, hain zuzen: Ogasunei behar beste bitarteko eman behar zaie soldatapeko ez diren errenta guztiak preskribitu baino lehenago ikuskatzeko. Haatik, honi heltzeko borondate politikorik ez dago.

ELAk fiskalitatearen debatea hauspotzen jarraituko du. Eta eutsi egingo die bere proposamenei: iruzur fiskalaren jazarpena eta azken hamarraldietan errenta altuei zein kapitalei egin zaizkien jaitsierak bertan behera uztea; proposamen hauek aurreko txostenetan jasota daude.

## b) Gastua: helburua Montororekin bat egitea da


### 1.- Europar Batasuneko azken postuetan Osasuneko eta Hezkuntzako gastu publikoari dagokionez

Aurrekontuen azterketa Europa mailan osasunean eta hezkuntzan egiten den inbertsioa alderatuz hasiko dugu. Honetarako 2015eko datuak erabili behar dira, dauzkagun azkenak, agerian geratzen da bai EAEn bai Nafarroan ere bi arloetan dagoen gastu publikoa urria dela.

Horrenbestez, osasuneko gastu publikoa EAEn BPGaren %5 besterik ez zen eta BPGaren % 5,1 Nafarroan; aldiz, EB-28ko batez bestekoa %7,2koa da, eta esaterako Frantziak %8,2 bideratzen du. Beraz, EAE eta Nafarroa EB-28ko azken postuetan zeuden; sei estatu baino ez daude atzerago: Zipre, Letonia, Errumania, Grezia, Luxemburgo eta Polonia.

Gastuan dagoen alde hau BPGaren 2,2 puntukoa da; europar batez besteko mailara iristeko EAEn aurrekontu-proiektuan jarrita dagoen zenbatekoa baino 1.709,3 milioi euro gehiago gastatu beharko litzateke 2018an (aurreikusitakoa 3.671,4 milioi euro da). Nafarroan 2018ko osasuneko gastua europako batz bestekoarekin berdintzeko aurrekontuan jasotakoak (1.059,3 milioi euro) baino 431,5 milioi gehiago gastatu beharko lirateke.

Osasuneko gastu publikoa (BPG %). EB-28, 2015



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat, Eurostat, Nafarroako Gobernua, Nastat


Hezkuntzako gastu publikoa, berriz, 2015eko BPGaren %3,7a izan zen EAEn eta % 3,1ekoa Nafarroan. EB-28an batez besteko gastua %4,9koa zen; areago, Danimarkak %7,1 bideratu zuen. EAE EB-28ko azken postuan zegoen, Irlandarekin batera; Errumania zen atzerago geratu zen estatu bakarra.

Batez besteko gastuan EBren eta EAEn artean dagoen 1,2 puntuko tartea 934,2

milioi euro dira. Alegia, datorren urterako hezkuntzako aurrekontuan jarritako 2.716,8 milioi euroei 934,2 milioi euro gehitu beharko litzaizkieke.

Nafarroaren eta EBren artean dagoen 1,8 puntuko tartea 369,9 milioi euro dira. Alegia, datorren urterako hezkuntzako aurrekontuan jarritako 651,7 milioi euroei 369,9 milioi euro gehitu beharko litzaizkieke.

*Hezkuntzako gastu publikoa (BPG %). EB-28, 2015*



*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat, Eurostat, Nafarroako Gobernua, Nastat*

EB-28an osasunera bideratutako BPGaren zatiarekin parekatzeko EAEn gastu publikoa 1.797,8 milioi eurotan gehitu beharko litzateke, eta 431,5 milioietan Nafarroan. Hezkuntzan batez besteko maila europarrera iristeko 968,3 milioi euro gehiago lirateke EAEn eta 369,9 milioi euro Nafarroan.

## **2.- Aldez aurreko kontuak EAeko eta Nafarroak aurrekontuetan: Estatuko Gobernuaren politikarekin bat egiten duten aurrekontuak**

Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren 2018ko aurrekontuek azken urteetako aurrekontuen ildo beretik doaz.

Aurreko ekitaldietan hori justifikatzeko esaten zen diru-bilketa ez zela nahikoa. Alabaina, jakina da bai EAeko eta bai Nafarroako ogasunen diru-bilketaren bilakaera espero baino hobea izan dela. 2017ko diru-bilketa % 11,8 hazi da EAEn eta % 13,3 Nafarroan 2016arekin alderatuta.

Diru-bilketa handiagoa, orain arteko logikari jarraituz gero, aurrekontuetara diru

gehiago bideratzeko baliatu beharko litzateke, zerbitzu publikoen kalitatea hobetu eta gizarte-prestazioen zenbatekoa gehitzeko.

Dena dela, 2018ko aurrekontuekin hori ez da betetzen; aitzitik, aurrekontuak hazkunde urria izango baitute.

Beraz, 2018ko aurrekontu hauek medio gero eta handiagoa da defizita beharrian sozial horien eta gobernuaren politikak benetan estaltzen dutenaren artean.

## **2.1. Rajoyrekin hitzartutako gastu-arau murriztaileak baldintzatutako aurrekontua**

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ondorengoa onartu dute:

- 2011ko uda betean erabaki zen Konstituzioaren erreforma azkarra: Orduan Zapateroren gobernuak eta PPK adostu zuten Konstituzioaren 135. artikulua aldatzea zorraren ordaina izan zedin instituzio guztien lehentasuna, aurrekontuko beste sail batzuren kaltetan, esaterako osasuna edota hezkuntza.
- Erreforma gauzatzeko 2012ko apirilean Aurrekontu-Egonkortasun eta Finantza-Iraunkortasun Legea ezarri zen, zeina Konstituzioaren erreforma baino are gogorragoa den: Lege honek espainiar gobernuari ahalmena ematen dio erakunde guztien defizit publiko maila finkatzeko (baita Eusko Jaurlaritzarena, Nafarroako Gobernuarena eta Foru Aldundiena ere), eta hurrengo urteetan instituzio guztiek izan dezaketean gastu goera erabakitzeko.

Horrela gastu publikoa diziplinatu nahi da, egoera ekonomikoa hobea zein okerragoa dela ere; helburua da aurrekontuetako sail sozialak gehitzeko aukera galaraztea. Zerbitzu publikoak merkantilizatu nahi dituzte, oinarritzko beharrian sozialen estaldurarekin negozioa egite aldera. Horrenbestez, krisiaz baliatu ziren mekanismo berriak ezartzeko, zertarako eta politika neoliberalak, doikuntza eta murrizketak etengabe aplikatuko direla bermatzeko; halaber, atzera egitea ere eragotzi nahi da.

a) Gastu-araua Kongresuan EAJren botoari esker atera zen aurrera, eta Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak berretsi egin zuen espainiar Gobernuarekiko akordioan

Irizpide horiek zertan islatu dira datorren urteko aurrekontuetan? 2017ko uztailaren 11n EAJ beharrezkoa izan zen espainiar parlamentuak onar zitzan instituzio guztien 2018ko aurrekontuak baldintzatzen dituzten hainbat erabaki; Hego Euskal Herrikoak ere hor sartzen dira. Egun horretan zer onartu zen?

- Administrazio guztiek derrigor bete beharreko defizit publiko maila: 2018an autonomia-erkidegoen defizitak ezin izango du BPGaren %0,4 gainditu. 2019an muga hori %0,1ekoa izango da, eta 2020an ezin da defizitik sortu.
- “Gastu-arau” delakoak finkatzen du 2018an “Administrazio zentralaren, Autonomia-Erkidegoen eta Tokiko Korporazioen gastu konputagarriak ezin duela %2,4 gainditu”, kopuru nominaletan. Aurreikusitakoaz gaindi dauden sarrerak oso-osorik zor publikoa murrizteko erabiliko dira. Hots, 2018ko aurrekontuen hazkundeari muga ezartzen zaie.

Aurrekontu-marko hau egun batzuk geroago hitzartu zen (uztailaren 19an Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta espainiar Gobernuaren artean eta uztailaren 28an Nafarroako Gobernuak eta estatukoak). Akordio hauetan hemengo instituzioek hitz ematen dute gastu-araua beteko dutela eta men egingo diotela defizit eta zor publikorako ezarritako mugari.

Akordio hauen ondorioz, 2018rako aurrekontuek ez dute baliabide ekonomiko gehiago bideratzen bere sailalara, ogasunen diru-bilketa haziagatik ere. EAJren botorik gabe muga horiek ez ziren aurrera aterako. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ez dute ukatu; kontrara, Rajoyren gobernuaren adostu du aplikatu egingo dituela. Beraz, oinarritzko akordio bat dute: aurrekontu-politika honelakoa izan behar da.

b) Gastu-araua, gure erakundeek aurrekontuak erabakitzeko duten ahalmenaren aurkako eraso zuzena

Esan izan da EAEko Ekonomia-Itunak eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoak hainbat bertute badituztela, besteak beste bertako erakundeei eskaintzen diela diru-sarrera nahikoak izateko aukera, beren gastu publiko maila finkatzeko.

Haatik, gastu-arauari buruzko akordioek oso bestelako markoa taxutzen dute, administrazioei kendu egiten baitie aurrekontu-politika erabakitzeko ahalmena. Praktikan Rajoyk esaten du Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Nafarroako Gobernuak eta Udalek aurrekontua zenbat hobetu dezaketen. Hortaz, aurrekontuei dagokienez ez dago autogobernurik. Diru-bilketa ondo ez doanean murriztu beharra badago, eta hazten denean gastua gehitu ezin bada, zer abantaila ematen du Ekonomia-Itunak eta Hitzarmen Ekonomikoak aurrekontuak hemen erabakitzerakoan?

Gastu-arauaren aldeko jarrera ezin da autogobernuarekin uztartu. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak azaldu egin behar dute zer dela eta babesten dituzten aurrekontu-ahalmena zapuzten duten erabaki politikoak.

### **3.- Eusko Jaurlaritzaren 2018rako aurrekontua**


#### **3.1- Diru-bilketa, 2007koaren parekoa. Hamarraldi galdua**

Diru-bilketan gertatu den hazkundera handia izanagatik, duela hamar urteko maila berreskuratu da, 2007koa alegia. Horrek esan nahi du hamarraldi bat galdu dela; epe honetan aurrekontu murrizketak egin dira eta zor publikoa hazi da; horrek Eusko Jaurlaritzari eragotzi egiten dio beharrian sozialei erantzun egokia ematea:

- 2017ko diru-bilketa (14.473,9 milioi euro), azken hamarkadan 2007koa baino handiagoa den bakarra da (13.771 milioi euro), nahiz eta instituzioek aitortzen duten hori ohiz kanpoko 600 milioi eurotako diru-sarrerengatik izan dela, fiskaltasunaren atalean azaldu bezala.
- 2017rako EAEko BPG balioespena 72.983 milioi eurokoa izan da, 2007an ekonomiak sortu zituen 66.881,9 milioiak baino %9 gehiago. Kontua da aberastasunaren hazkundera hori ez dela diru-bilketan islatu.
- Horrenbestez, itunpeko zergen ondoriozko presio fiskala 2017an BPGaren %19,8koa izan da, 2007ko %20,6a baino dezente apalagoa. 2017an itunpeko zergengatik presio fiskala 2007koa balitz 583,8 milioi euro gehiago bildu beharko lirateke.
- EAEko presio fiskala duela hamar urte Europako azken postuetan zegoen; artean aldea areagotu egin da, eta horrek eragin zuzena du ongizate-estatuan, berau EBko beste herrialde batzuetakoa baino askoz gutxiago garatu baita.
- Azken hamar urteetan diru-sarreretan zulo handia sortu da. Sarrera txikiagoek bi ondorio izan dituzte: Aurrekontuetan egin diren murrizketa antizak eta zorpetze publiko gero eta handiagoa. Eusko Jaurlaritzaren

zorra gehitu da sarrerak urriagoak izan direlako, ez gastua hazi delako.

**Hitzartutako zergen bilakaera eta zor publikoaren gastua BPGarekiko (%). EAE 2007-2017**



Iturriak: Eustat, Eusko Jaurlaritza

Beraz, aurrekontu-politikaren bilakaera hain negatiboa izan bada, Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak hitzartu eta aplikatu izan duten zerga-politikaren ondorio da: Pribilegiozko tratua errenta altuei, enpresei eta kapitalari (zerga jaitsierak eta iruzur fiskalaren jazarpen ezdeusa).

**3.2- 2018ko aurrekontua, tankera berekoa**

2018rako aurreikusi den bilakaerak egoera areagotu egingo du. Eusko Jaurlaritzak 2018an zorra ordaintzera 1.346,7 milioi euro bideratuko dituela aurreikusi du, hau da, bere aurrekontuaren ia %12. Beraz, zorraren ordaina 2018an aurten baino 300 milioi euro handiagoa izango da. Bilakaera epe luzeagoan aztertuz gero, emaitza are ikusgarriagoa da: 2009an zor publikoa ordaintzeko 83,6 milioi euro besterik ez ziren erabili, Jaurlaritzaren aurrekontuko %1 baino gutxiago.

**Zor publikoaren bilakaera eta zor publikoaren pisua aurrekontuan. EAE 2007-2018**

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Zor publikoa (€)	83,6	198,0	312,9	364,8	412,9	724,9	911,2	773,0	1.036,2	1.346,7
Zor publikoa / Guztirako aurrekontua (%)	%0,8	%1,9	%3,1	%3,7	%4,5	%7,4	%9,1	%9,7	%9,7	%11,9

Iturriak: Eustat, Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzaren benetako ahalmen ekonomikoa analizatu ahal izateko aurrekontutik bi sail kendu behar dira: zorra ordaintzekoa eta aurrerago espainiar Gobernuak kitatu behar dituen obren aurrerapenari buruzkoa (AHT eta Hego-Burdinbide Saihesbidea). Beraz, Eusko Jaurlaritzak 2018an bere sailetarako 9.978 milioi euro izango ditu, BPGaren %12,8a (2017ko ehuneko berdina).

**Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-proiektua, AHT eta zor publikoa kenduta (€)**

	2018
Guztirako aurrekontua	11.486,4
AHT aurrerapena	161.379,6
Zor publikoa	1.346,7
Guztira AHT eta zor publikoa kenduta	9.978,2

*Iturria: Eusko Jaurlaritza*

### 3.3- Eusko Jaurlaritzaren gezurrak aurrekontuaren inguruan

Propaganda egiteko Jaurlaritzak, hedabide publikoen babesarekin, bere estrategia hiru ideiatan oinarritzen du. Azter ditzagun:

#### a) Lehen gezurra: informazio gardena

Eusko Jaurlaritzak, ostera ere, bere propaganda kanpaina antolatu du herritarrei bere aurrekontua zein ona den saltzeko. Kanpaina egiteko datuak era interesatuan ematen ditu. Gainera, Gobernu-kontseiluak proiektua erabakitzen duen egunean (urriaren 24an) soilik datu bakan batzuk ematen dituztela ezagutzera, Jaurlaritzak nahi dituenak, eta nahi duen moduan. Ia astebetetz, urriaren 30era arte, ez da beste daturik ematen. Deigarria da hedabideek eta beste indar politikoez jokabide ilun eta antidemokratiko hau ontzat ematea.

Beraz, emandako informazioa partziala eta interesatua da; gainera, aurrekontuaren edukia ia astebetetz ezkututzen dute. Honek ez dauka ezer gardentasunetik.

#### b) Bigarren gezurra: aurrekontuetara gero eta diru gehiago bideratzen da, ahalegina handiagoa da

Saldu nahi izan diguten ideietako bat da aurrekontu hauetarako diru asko jarriko dela: "historian izan diren aurrekonturik handienak".

Hasteko, aurreko urtekoa baino aurrekontu handiagoa izatea ez da inolako meritua. Esaterako, pentsioen %0,25eko igoera benetan erosteko ahalmena murriztea eta pentsiodunak zigortzea da. Halaber, kontutuan izan behar da zinez zer esaten duten historian izan den "aurrekonturik handiena" aipatzen dutenean.

Ezen eta diru gehiago izango al du Jaurlaritzak eskura bere eginkizunetarako (osasungintza, hezkuntza, etxebizitza-politika, Ertzaintza, gizarte-prestazioak, administrazioarentzat lan egiten dutenak...)? Erantzun laburra ezezkoa da. Sakonagoa, berriz, aurrekontu honekin arlo publikoak ekonomian duen presentzia mailaka gutxitzen ari direla; gero eta eremu gehiago merkatuaren menpe ari dira uzten.

Erantzun laburra goian aipatu dugu. 2018rako aurreikusitakoa, Trenbide-Sare Berria eta zorraren ordaina kenduta, guztira 9.978,2 milioi euro dira. Sail hauetara 2009an bideratu zen zenbatekoa (10.170,9 millones) baino ia 200 milioi gutxiago.


Erantzun landua are gordinagoa da, eta urtebetean gertatzen dena gainditzen du. Azken urteetan Eusko Jaurlaritzaren pisua ekonomian zeharo arindu da. Jaurlaritzaren berezko eginkizunak finantzatzeko erabiltzen den aberastasunaren (BPGaren) zatia



2009ko %15etik 2018ko %12,8ra pasako da.

Hau da, Eusko Jaurlaritzak 2018an bere sailen esku jarriko balu 2009an jarri zuen aberastasunaren zati bera, aurrekontua atal horietan erabaki dena baino 1.709 milioi handiagoa izan beharko litzateke.

Gastuaren bilakaera, AHT eta zor publikoa kenduta (BPG%). EAE 2009-2018



Iturriak: Eustat, Eusko Jaurlaritz

Beraz, agintarien diskurtso triunfalistak iritzi publikoari sinestarazi nahi dio aurrekontuetan gero eta ahalegin handiagoa egiten dela, baina benetan etengabeko gainbehera ari da gertatzen. Lehenago ere arlo sozialetan defizita izugarria zen, baina denbora pasa ahala askoz handiagoa da.

c) Hirugarren gezurra: aurrekontua soziala da

Aurrekontua soziala izango da gizartearen beharrezan asetzen baditu. Zerbitzu publikoetarako behar beste baliabide (gero eta gehiago, aurrekontuez ari baikara) jartzen bada; etxebizitza izatea bezalako oinarritzko eskubideak bermatzen badira; gizarte-prestazioen maila hobetzen bada...

Bere eskumenak garatzeko gero eta aurrekontu txikiagoa bada ezinezkoa da aurrekontuak sozialak izatea.

Urtero errepikatzen den propaganda ofizialak dio "aurrekontuaren %77 gizarte-politikei dagokie". Batetik, datua ez da zuzena, kalkulutik kentzen baitu zorraren ordaina, urtez urte handitzen ari dena. Baina are engainagarriagoa da beste hau: Eusko Jaurlaritzaren eskumen nagusiak osasungintza eta hezkuntza dira; beraz, harrigarria litzateke aurrekontuaren zati handiena gai ez sozialetara bideratzea.

Sakoneko auzia ez da aurrekontuaren zenbateko zatia bideratzen den gizarte-politikara, baizik erabakitzea ea politika horietarako nahikoa baliabide dagoen ala ez. Eta erantzuna argia da: ez. Orain arte ikusi dugu, eta ondoren ere egiaztatuko da.

### 3.4- Aurrekontuaren analisi zehatzagoa


Behin konturik orokorrenak aztertuta, goazen ikustera aurrekontua sektorekako politikan nola bilakatzen ari den.

#### a) Osasunerako aurrekontua BPGarekiko gero eta txikiagoa da

2018an osasunera bideratu nahi den zenbatekoa 3.671,4 milioi euro dira, hots, 2017ko itxiera aurreikuspenarekiko %1,5eko igoera eskasa.

Honenbestez, Eusko Jaurlaritzak Osasunera bideratuko duen aberastasunaren zatia %4,9a da, 2017an baino hamarren bat gutxiago. Areago, 2009tik hona jaitsiera handiagoa da, ekitaldi hartan Osasuneko gastu publikora BPGaren %5,2 bideratu baitzen. Bilakaera negatibo horri buelta emateko Osasunera bideratu beharko lirateke 2018ko aurrekontu-proiektuan jarri direnak baino 233 milioi gehiago..

Osasun gastuaren bilakaera (BPG %). EAE 2009-2018



Iturriak: Eustat, Eusko Jaurlaritza

#### b) 2018rako Hezkuntzarako aurrekontua 2009koa baino 108 milioi txikiagoa da

Aurrekontu-proiektuan Hezkuntzarako 2.716,8 jarri dira, 2017ko itxiera aurreikuspena baino 45 milioi gutxiago; honek esan nahi du %1,4 moztu dela.

Jakina da Hezkuntzan era guztietako murrizketak aplikatu izan direla; hori agerian uzten du datu batek: 2018rako aurreikusi den zenbatekoa 2009ko gastu erreala baino 108 milioi txikiagoa da.

Arlo honetarako jartzen diren baliabide ekonomikoen murrizketak hezkuntza-tarte guztiei eragiten die (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta

Unibertsitatea); hau erakusten du ondoko grafikoak.


*Hezkuntzako gastua (€). EAE 2017-2018*

	2017	2018
Haur eta Lehen Hezkuntza	964,2	956,7
Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	1.003,0	967,6
Unibertsitatea	323,2	319,6
Hezkuntza guztira	2.761,8	2.716,8

*Iturria: Eusko Jaurlaritza*

Azkenik, deigarria da hezkuntzako gastu publikoak aberastasun osoarekiko galdu duen pisua: 2009ko %4,2tik 2018ko %3,5ra erori da. BPGaren %3,5tik %4,2ra pasatzeko 2018rako Hezkuntzako aurrekontura 521 milioi euro bideratu beharko lirateke.

*Hezkuntzako gastuaren bilakaera (BPG %). EAE 2009-2018*



*Iturriak: Eustat, Eusko Jaurlaritza*

c) Gizarte-prestazioetan oraindik murrizketak aplikatzen dira

Gizarte-prestazioetan ere murrizketak ari dira aplikatzen oraindik, kasu guztietan gainera:

- 2012an ezarri zen %7ko murrizketari eutsi zaio gizarte-prestazio guztietan. Kontziliaziorako laguntzak, zeintzu 2017an salbuetsita geratu ziren PPrekin

aurrekontuen inguruan izan zen akordioa medio, berriro murriztuko dira.

- DBEaren zenbatekoa %1,5 besterik ez da igoko. Gogoratu beharra dago DBEk aurreko puntuan aipatutako %7ko murrizketa ez ezik beste %7 ere moztu dutela, 2017an ez delako lanbidearteko gutxieneko soldataren igoera aplikatu. Bestalde, Eusko Jurlaritzak 2018an DBEa berriro erreformatzeko asmoa du; dagoeneko iragarri du atzerapauso handiak izango direla, esaterako etxebizitza bakoitzeko DBE bakarra jasotzea.
- Gizarte-Larrialdietarako laguntzak (GLL) bere hortan mantenduko dira, 27 milioi eurotan.
- Berriro ezarriko da Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzeko aukera kentzen duen Xedapen Gehigarria; hau Etxebizitzarako Prestazio Ekonomiko berria arautzen denean gertatuko litzateke. Gogoratu beharrekoa da azken prestazio honen dekretu-zirriborroa gauzatu balitz etxebizitzako gizarte-prestazioak jasotzeko aukera zeharo mugatuko litzatekeela.
- Etxebizitzarako prestazioen gehienezko zenbatekoak berriro izoztuko dituzte, 250 eurotan.

d) Etxebizitzarako aurrekontua 2009koa baino 90 milioi txikiagoa da

Etxebizitza politikari garrantzi handirik ez zaio ematen; beraz, herritarrei bizileku bat izateko aukera bermatzeko politikarik ez da egin nahi. Hau islatzen da 2018rako Eusko Jurlaritzaren aurrekontuan sail honek duen tamainan: 127 milioi euro; 2017ko zenbatekoa baino 5 milioi gehiago dira (%4), baina 2009an 90 milioi gehiago jarri ziren (217,4).

*Etxebizitzako gastua (€ y BPGaren %). EAE 2009-2018*

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
€	217,4	182,6	123,0	146,2	125,7	107,1	99,8	107,6	122,1	127,0
% BPG	%0,32	%0,27	%0,18	%0,22	%0,19	%0,16	%0,14	%0,15	%0,16	%0,16

*Iturriak: Eusko Jurlaritza, Eustat*

e) Negoiazio kolektiborako eskubidearen ukapena: Rajoyk erabakitakoa aplikatzen da


Eusko Jurlaritzaren ardurapean dauden langileen baldintzekiko ere politika kontinuista da:

- Soldata igoera gehienez %1,5ekoa izango da, betiere Estatuko Aurrekontu Orokorretan hala erabakitzen bada.
- Itzarrirako ekarpena berreskuratu arren, bere garaian murriztu zena baino txikiagoa da.
- Negoiazio kolektiborako eskubidea ukatzen da oraindik. Lan-baldintzak gobernuak aldebakarreko erabakiz ezartzen ditu.

f) Euskararen pisua, gero eta txikiagoa

2018an euskara sustatzeko sailerako 107 milioi euro aurreikusi da, aurten baino 2 milioi gehiago. Haatik, BPGarekiko pisua gero eta txikiagoa da: orain %0,0013an dago.

*Euskarako gastua (BPGaren %). EAE 2009-2018*



*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat*

## **4.- Nafarroako 2018rako aurrekontua**

### **4.1- Gobernuak ez du aurrekontu parte-hartzailerik nahi**

Oraingo Gobernuak onartutako duen hirugarren Aurrekontu Proiektua da hau. Tamalez, inolako parte-hartzerik onartu gabe jarraitzen du aurrekontua egiteko. Aurreko Gobernuak egiten zuten modura.

Nafarroako Gobernuak ez du deus egin gizarteak aurrekontu politikan gehiago eta hobeki parte har dezan. Aurreko bi urteetan bezalaxe (egungo Gobernu berarekin), eta aurreko Gobernu guztietan, gizarte entitateek eta sindikatuok ez dugu aukerarik izan zergen eta aurrekontuen gaineko politika, gutxieneko baldintzetan, lantzeko eta eztabaidatzeko.

Aurten gauza bera gertatu da. Bide bakarra Kontseilu Ekonomiko eta Soziala da (CES), baina inola ere ez da bide egokia gizarte entitateek eta sindikatuok egiazki parte har dezagun.

Doi-doi astebetearekin egiten da Kontseiluaren deialdia. Aurrekontuen Aurreproiektuaren gaineko balorazio hutsa egiten da, eta kito, horixe da partaidetza guztia, eta ez du azalpenik ematen kontu-sailen zertarakoaz, denbora gehiago behar baita azterketa hori egiteko, eta ez dago egiazki eztabaidatzeko aukerarik. Gainera, behin bilera hori egin ondoren, Gobernuak ere ez du astirik eztabaidatzeko bileran sortzen diren iritzien eta proposamenen gainean, zeren Aurrekontuen Aurreproiektu hori hurrengo egun baliodunean bidali behar baita parlamentura.

Ez daiteke inola ere esan hori sindikatuak aurrekontuen politikan parte hartzeko benetako bidea denik. Hurbilago dago propagandatik egiazko partaidetzatik baino.

### **4.2- 2018ko Aurrekontua norabide berean doa**

- **Aurrekontua % 0,6 haziko da 2017tik 2018ra**

2018ko Aurrekontu Proiektuak 4.157,6 milioi eurotako gastua aurreikusten du. Hemendik AHTari bideratuko zaion milioi 1 euro kendu beharko litzateke, teoriarik Madrigo Gobernuak bueltatuko baitu, eta, beraz, ez duelako Nafarroako Gobernuarentzat gasturik suposatuko. Hau da, gastua 4.156,6 milioi eurotako izango da.

Gastuaren bilakaera eurotan aztertzen badugu, 2018ko Aurrekontu Proiektuak 2017 aurrekontu bateratuak (4.131,5 eurotako da, AHTko gastua kenduta) baino 25 milioi euro gehiago gastatzea aurreikusten du. Hau da, % 0,6 gehiago, eta 2016ko gastua (3.966,5 milioi euro) baino 190 milioi gehiago.

Azken urteetako bilakaerak gastuaren hazkundera erakusten du (aurrekontu bateratua 2017ko kasuan eta aurrekontua 2018an). Azpimarratzekoa da bai 2008an eta bai 2007an gastatutakoa 2018rako aurreikusitakoa baino gehiago izan zela (245,8 eta 137,7 milioi hurrenez hurren). Hau da, 2018ko Aurrekontua 2007an eta 2008an gastatutakoa baino txikiagoa da.

*Nafarroako Gobernuko gastu publikoa (milioika eurotan eta BPGaren %). 2007-2018*

2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017*	2018*
% 23,6	% 23,3	% 21,8	% 21,5	% 19,0	% 19,7	% 20,2	% 20,7	% 21,0	% 20,4	% 20,6	% 20,2
4.294,3	4.402,4	3.987,1	3.979,0	3.580,0	3.611,7	3.650,4	3.784,5	3.954,8	3.966,5	4.131,5	4.156,6

*Iturriak: Nafarroako Gobernua, Nastat*

(\*) AHTra bideratutako gastuak kenduak izan dira urtez-urte Estatuak bueltatu beharreko dirua delako ustez, eta, hortaz, ez delako Nafarroako Gobernuaren gastu erreala

(\*\*) 2007tik 2012ra gastu fiskalak kendu dira, ez direlako gastua, eta ondorengo urteetako informazioarekin homogeneoa izateko

(\*\*\*) 2017 eta 2018ko datuak aurrekontu bateratukoak eta Aurrekontu Proiektukoak dira hurrenez hurren

- **Aurrekontuak pisua galtzen jarraitzen du ekonomiarekiko**

2018ko aurreikuspena oso txarra da. Aurrekontua % 0,6 igoko den bitartean, BPGaren igoera % 2,7koa izatea espero da. Hau da, aurrekontuak pisua galtzen jarraituko du ekonomiarekiko, BPGaren % 0,4a galduko du hain zuzen.

Beste modu batera esanda, 2018ko aurrekontuak 4.238,8 milioi eurotako izan behako luke ekonomiarekiko pisurik ez galtzeko (82,2 milioi euro handiagoa).

*Aurrekontua BPGarekiko, aurrekontuaren bilakaera eta BPGaren bilakaera (milioi euro eta %). Nafarroa 2017-2018*

	2017	2018	Diferentzia (%)
Aurrekontuaren bilakaera (milioi €)	4.131,5	4.156,6	+0,6
BPGaren bilakaera (milioi €)	20.010,6	20.550,9	+2,7
Aurrekontua BPGarekiko (%)	20,6	20,2	-0,4

*Iturriak: Nafarroako Gobernua, Nastat*

2018rako aurreikusitako gastua BPGaren % 20,2koa da. Honek suposatzen du 2018an 2017an baino BPGaren 0,4 puntu gutxiago gastatzea.

Aurreko urteetako bilakaerak erakusten du 2007tik (krisi aurretik) 2011ra aurrekontuek BPGaren 4,6 puntu galdu zituztela, % 23,6tik % 19ra pasaz. Urte horretatik 2015era 2 puntu erreperatu ziren, % 21eraino. Aldiz, azken hiru urteetan berriro ere aurrekontuak pisua galdu du BPGarekiko, aipatutako % 20,2raino.


Krisi garaian ekonomiak (BPG) behera egin duenean edo hazi ez denean, aurrekontuak asko murriztu dira. Aldiz BPGa hazi denean, aurrekontua era berean hazi beharrean, 2015etik hona pisua galdu du.

Beste alde batetik ikusita, 2018ko aurrekontuak 2017ko aurrekontuaren BPGaren partaidetza berdina balu, 698,7 milioi euro gehiago gastatu beharko liriateke.

Argi gelditzen da, beraz, aurrekontua murriztea edo handitzea erabaki politiko bat dela

ekonomiaren bilakaeraren ondorioa baino. Nafarroan asko murriztu da aurrekontua krisia dela eta, baino ekonomia hazi denean, aurrekontua ez da era berean hazi.

BPGaren bilakaera (milioi euro). Nafarroa, 2007-2018



Iturria: Nastat

### 4.3- Lehentasuna zor publiko eta itzalpeko bidesaria dira

- **Aurrekontuaren % 8a zor publikoa ordaintzeko izango da**

Nafarroako Gobernuak 2018an 332,8 milioi euro bideratuko ditu zor publikoa ordaintzera (BPGaren % 1,6). Hau da, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren % 8 zor publikoa, honen interesak eta gastuak ordaintzeko izango da. Hezkuntzan gastatzea aurreikusten denaren erdia adina gutxi gora behera.

Gastu honen zati handi bat interesak eta zorraren gastuak ordaintzeko bideratuko da. Hain zuzen, 2018an 88,6 milioi euro bideratuko dira interesak eta zorraren gastuak ordaintzera, hau da, 242.728 euro gastatuko dira egunero interesetan eta zorraren gastuetan (amortizazioaz gain).

Nahiz eta 2018rako zor publikora bideratuko den gastua 2017koa baino txikiagoa izan, bilakaerak erakusten du zor publikoaren urtez-urteko ordainketa haziz joan dela 2016raino (529 milioi euro ordaindu ziren). Eta 2018an jaitsi den arren, 2009an baino 298,1 milioi euro gehiago ordainduko dira gai honetan.

Gastua zor publikoan (milioi euro) 2009-2018

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
34,7	144,1	148,0	199,4	299,4	383,9	414,3	529,0	387,2	332,8

Iturriak: Nafarroako Gobernuak, Nastat

- **Zor publikoa urtez-urte hazten ari da**

Zor publikoa hazten ari da urtez-urte nahiz eta murrizketak egin diren. Eta ekonomiak gora egiten duenean ere, zor publikoak hazten jarraitzen du.

Gastatzen denaren adinakoak ez diren diru-sarrerak ditugu ekonomia hazten ari den




garaietan. Honek bistan uzten du arazoa diru-sarrerena dela, ez gastuarena. Eta politika fiskala (diru-sarrerak) errotik aldatzen ez den bitartean, aurrekontuek murrizketak leheneratu gabe jarraituko dute, eta gero eta kalitate eskasagoa izango dute zerbitzu publikoek.

Nafarroako zor publikoa 3.766,7 milioi eurotako izan da 2017ko ekainean, eta urtea 3.693 milioi eurotako zor publikoarekin ixtea aurreikusten da.

2016ko abenduan 3.460,8 milioietakoa zen zorra, oraingoa baino 305,9 milioi txikiagoa.

#### Nafarroako zor bizia (milioi euro) 2008-2017



*Iturria: Espainiako Bankua\* 2017ko datua ekainekoa da, gainontzekoak abendukoak dira*

Bistakoa da arazo honi ezarritako politikak ez direla konponbidea izan. Are gehiago, arazoaren zergatietako bat dira:

- Diru-sarreraren eta gastuen arteko defizita diru-sarrera urrien ondorioa da. Beharrezkoa diru-sarrerak handitzea, pobrezia eta aberastasunaren banaketa injustua dakarten murrizketak mantendu behar. Egiteko asko dago. Europako presio fiskalaren batz bestekoa berdinez gero, 1.675 milioi euro gehiago bilduko liriteke, eta soilik Sozietateen gaineko Zergak 2007 bildu zuenaren adina bilduta, 377 milioi euro gehiago bilduko liriteke (2018an zor publikoa ordaintzera bideratuko direnak baino 44,2 milioi euro gehiago).
- Beharrezkoa da zor publikoa ikuskatzea. Urtero Gobernuak partidaz-partida non murriztu daitekeen begiratzen du. Diru partida guztietan egiten da hau, zor publikoaren diru-partidan izan ezik. Beharrezkoa da, eta sahiatsezina zor publikoaren arazoa konpondu nahi bada, berau ikuskatzea zorraren zein zati sortu den interes publikoaren eskaerari jarraituz eta zein ez aztertzeke.

- **Zor publikoak eta itzalpeko bidesariak egunean 1,2 milioi euro suposatuko dute**

Nafarroako Gobernuak obra handiak ordaintzeko erabili duen bide bat itzalpeko bidesaria delakoa da (Nafarroako ubidea edota A-21 nahiz A12 autobiak). Hau da, enpresa pribatu batek obra eraiki eta finantzatzen du, eta Gobernuak obra horren erabilera ordaintzen du. Horrela, administrazioa ez da zorpetzen epe laburrean eta kontuak mozarrotzen ditu, baina epe luzera gastua askoz ere handiagoa da.

2018ko Aurrekontu Proiektuak itzalpeko bidesaria ordaintzeko 93,4 milioi euro bideratuko ditu, 2017an baino 7,5 gehiago. Gastu hau 2009tik 50 milioi eurotan hazi da (43,4tik 93,4ra).

*Itzalpeko bidesariaren gastua (milioi euro) 2009-2018*

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
43,4	44	49,9	67,4	67,0	65,4	68,2	78,4	85,9	93,4

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

Beraz, zor publikoaren eta itzalpeko bidesariaren gastua batzen baditugu, 2018an 426,2 milioi euro honetara bideratuko direla ikusiko dugu, aurrekontuaren %10,3a. Beste era batera ikusita, egunean 1,2 milioi euro.

*Zor publikoan eta itzalpeko bidesarian gastua (milioi euro) 2009-2018*

	2.009	2.012	2.015	2.016	2.017	
Aurrekontua guztira	3.987,1	3.611,8	3.954,9	3.966,6	4.131,5	4
Zor publikoa eta itzalpeko bidesaria	78,1	266,8	482,5	593,6	473,1	4
Aurrekontua zor publiko eta itzalpeko bidesaririk gabe	3.909,0	3.344,9	3.472,4	3.373,0	3.658,4	3
Aurrekontuaren %	% 2,0	% 7,4	% 12,2	% 15,0	% 11,5	1

*Iturria: Nafarroako Gobernua*


#### 4.5- Hitzarmena Estatuarekin

- **Aurrekontuaren % 13a opakutasunean**

Aurrekontua Nafarroako Gobernuak Estatuarekin Hitzarmena adostu baino lehen onartu da. Beraz, aurrekontuak ez du akordio horren edukirik jasotzen.

Aurrekontuan 2018an Nafarroak Estuari 541,7 milioi ordaintzea aurreikusten da. Honek suposatzen du 2017ko ekarpena baino 71,7 milioi euro gehiago ordaintzea, eta aurrekontuaren % 11,4a honetara bideratetik % 13a bideratzera.

Nafarroak Estatuari egindako ekarpena (milioi euro). 2009-2018



Iturria: Nafarroako Gobernua

Bistakoa da Nafarroarentzat hobe dela 541,7 milioi euro ordaintzea 591 milioi (2015ean bezala) edo 613,2 milioi (2009an) ordaintzea baino. Hala eta guztiz ere, eta zenbatekoari garrantziarik kendu gabe, gai honetan dagoen opakutasuna eta informazio falta azpimarratu behar dira.

Iñork ez daki, Gobernuaz aparte, zergatik ordaintzen den zenbateko hori, nola kalkulatu den, edo nola negoziatu den.

Estatuari aportazioa Nafarroako aurrekontutan dagoen partida handienetakoa izaten da. Hau da, aurrekontuari zor publikoa, itzalpeko bidesaria eta Estatuari egindako aportazioa kentzen badiogu, ikus dezakegu 2018an Nafarroako Gobernuaren eskutan egongo den aurrekontua ia 1.000 milioi euro txikiagoa dela.

Zor publikoaren, itzalpeko bidesariaren eta Estatuari egindako ekarpenaren bilakaera (milioi euro). 2009-2018

	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013	2.014	2.015	2.016	2.017	2.018
Aurrekontua guztira	3.987,1	3.979,0	3.580,1	3.611,8	3.650,5	3.784,6	3.954,9	3.966,6	4.131,5	4.156,6
Zor publikoa eta itzalpeko bidesaria	78,1	188,1	198,0	266,8	366,3	450,3	482,5	593,6	473,1	426,2
Ekarpena Estatuari	613,3	504,9	498,1	520,7	571,9	555,8	591,0	520,7	470,0	541,7
Aurrekontua zor publiko, itzalpeko bidesari eta Estatuari ekarpenik gabe	3.295,7	3.286,0	2.884,0	2.824,2	2.712,3	2.778,5	2.881,3	2.852,3	3.188,4	3.188,7

Iturria: Nafarroako Gobernua

• **Hitzarmenaren akordioaren negoziazioa**

Bi alderen arte erlazioa beti izaten da bilateral, baita bi Estaturen arteko guda ere. Mikel Aranburu Ogasun Kontseilariak onartu izan du aportazioaren inguruko akordioaren negoziazioa aldebikoa izan dela, baino ez berdinen artekoa. Aranburu ez da akordioaren edukia handikatu eta berdinen arteko negoziazioak bezala aurkezten

dituzten EAEko beste hainbat politiko bezalakoak. ELAk Aranbururen zintzotasuna eskertzen du honengatik.

Aranburuk gauza gehiago esan zituen ezjakintasun orokortua dagoen gai honen inguruan. Adibidez, Nafarroako Gobernuak akordioa 215 milioi euroak zor publikoak ordaintzera bideratuko dituela. Honela Aurrekontuen Egonkortasunerako Legea eta PPK eta PNVk 2017ko uztailan adosututako gastu erregela beteko da. Aranbururen iragarpena diru honen patuaren inguruan bat dator ere Nafarroako Gobernuak Rajoyekin gastu erregela betetzeko egindako akordioarekin.

ELAk behin eta berriz esan du gastu erregela astakeria hutsa dela, eta honen helburua Gobernuan dagoen partidua edozein izanda ere, politika neoliberal berbera aplikatzea dela. Berdin du diru-sarrerak handitzea eta behar sozialak izatea. Gastu erregelak ez baitu uzten diru gehiago bideratzen gastu sozialera. Gastu erregela, hazkunde garaian are eta astakeria handiagoa da.

Posible al da autogobernuaz hitz egitea zenbat eta zertan gastatu ezin badugu erabaki? Ez, inondik inora. Horregatik, ELAk esaten du PP eta PNVren arteko akordioa gastu erregelaren inguruan, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren ondorengo onarpena autogobernuaren aurkako eraso dela. Gastu erregelarekin Gobernuan daudenak, nahiz eskubikoak edo ezkerrekoak izan, kudeatzaile huts bihurtzen dira. Ondorioz, beste batzuek hartutako erabakiak kudeatzeak ez du aldaketa sozialik ekarriko, nahiz eta askotan ondoren erabaki horien inguruan akordioak egin.

Ezker politikoak erdigunean jarri beharko luke astakeria hau, eta bertan behera uztea exijitu. Arrazoi ezberdinengatik egin beharko luke. Lehendabizikoa da gizarteari azaldu behar diolako neoliberalismoa ez dela aukera bakarra. Bigarren arrazoa da politika neoliberal hauen aurka eginez bere oposizioari sinesgarritasuna ematen diola. Hirugarrena da sekula ardura instituzionalik lortuz gero, politika sozialak egiteko aukerarik gabe geratuko direla. Eta laugarrena da kontraesana sortzen duela erabakitzeke eskubidea defendatzen dutenen artean, gizarteratu behar den kontraesana: gastu erregela ez da soziala eta autogobernuaren aurkakoa da.

Eskuin politikoak gastu erregela ez azaltzea normala da, gizartearen ezjakintasunean oinarritzen den bere proiektuaren oinarritzko zatia da. Ezker politikoak ez azaltzeak, ordea, ulertezina da. Azaldu beharra dauka, eztabaidaren erdigunean kokatu, eta indarrean jarraitzen duten eta krisi garaian ezarri ziren mugak ezabatzeko konpromisoa hartu. Muga hauek politikak aldatu ez daitezzen indarrean jarraitzen dutelako. Egin beharra dute politika sozialak behar ditugulako eta premiazkoa delako propaganda neoliberalarekin amaitzea.

#### **4.6- Madrilekin bete eta zorra ordaindutakoan, aurrekontua egiten da**

Aurrekontuetan Osasun Departamentura bideratu da dirurik gehien; 1.059,2 milioi euro, zehazki (aurrekontu guztiaren % 25,5a). Ondotik, Ogasun eta Finantza Politikako Departamentura; 953,1 milioi euro (horietarik, 332,8 zor publikora bideratuko dira eta 541,7 Hitzarmena ordaintzera).

Dirurik gutxien Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentura bideratuko da (21,7 milioi, % 0,5), eta ondotik, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentura (55,8 milioi, % 1,3).

Garapen Ekonomikoko Departamentua ere aipatu behar da (244,6 milioi), haren barnean itzalpeko bidesarira bideratzen den dirua baitago (93,4 milioi); hortaz, Departamentuaren benetako gastua 151,2 milioi euro izanen da.

Gastua Departamentuen arabera (milioika eurotan, guztiaren %, BPGaren %)

	<b>Aurrekontu Pr.</b>	<b>Guztia/ %</b>	<b>BPG %</b>
Lehendakaritza, Funtzio Pub., Barne eta Justizia	324,1	% 7,8	% 1,6
Ogasuna eta Finantza Politika	953,1	% 22,9	% 4,6
Hezkuntza	651,6	% 15,7	% 3,2
Osasuna	1.059,2	% 25,5	% 5,2
Landa Garapen, Ingurumen, Toki Ad.	388,9	% 9,4	% 1,9
Garapen Ekonomikoa	244,6	% 5,9	% 1,2
Eskubide Sozialak	440,7	% 10,6	% 2,1
Kultura, Kirola eta Gazteria	55,8	% 1,3	% 0,3
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak	21,7	% 0,5	% 0,1
Nafarroako Kontseilua	0,4	% 0,0	% 0,0
Parlamentua	17,0	% 0,4	% 0,1
<b>Guztira (AHTik Gabe)</b>	<b>4.156,6</b>	<b>% 100,0</b>	<b>% 20,2</b>

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

**a) Gastua Osasunean**

2018ko Aurrekontu Proiektuak 1.059,2 milioi euroko gastua aurreikusten du Osasun Departamentuan, 2017an baino 5,7 milioi euro gehiago. Honek suposatzen du BPGaren % 5,2ko adinako gastua, 2017an baino 0,1 gutxiago. Hau da, nahiz eta gastua 5,7 milioi euro hazi, Osasunari bideratuko zaion gastuak pisua galduko du.

Beste era batera ikusita, Osasun Departamentuko gastua % 0,5 haziko da 2018an, BPGa % 2,7 haziko den bitartean.

Bilakaerak erakusten duenez, 2009tik gastua 95 milioietan handitu da (964,3 milioitik 1.059,3ra). Baina bilakaera BPGarekiko aztertzen badugu, 2017tik 2018ra 0,1 puntu galdu den bezala, 2010arekin alderatzen badugu, BPGaren 0,4 puntu gutxiago gastatuko dira 2018an (2010ean BPGaren % 5,6ko adinako gastua izan zuen Osasunak). Honek suposatzen du Osasunak 2018an 2017an adinako gastua izango balu BPGarekiko, 20,5 milioi euro gehiago gastatuko liratekeela, 82,2 milioi gehiago 2010eko BPGaren partaidetzarekin.

Gastua Osasunean (milioi euro eta BPGaren %) 2009-2018

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017*	2018*
Milioi €	964,3	1.036,1	951,1	941,4	891,8	917,5	963,8	985,0	1.053,5	1.059,3
BPGaren %	% 5,3	% 5,6	% 5,1	% 5,1	% 4,9	% 5,0	% 5,1	% 5,1	% 5,3	% 5,2

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

**b) Gastua Hezkuntzan**

Hezkuntzara bideratuko den gastua 651,6 milioi euroakoa izango da 2018an, 2017an baino 4,6 milioi gehiago (647milioi). Gastu hau BPGaren % 3,2koa da, 2017an bezala.

Osasuneko aurrekontuarekin gertatzen den modura, Hezkuntzara bideratzen den aurrekontua ekonomiaren azpitik haziko da. 2017tik 2018ra Hezkuntzako gastua % 0,7 haziko da ekonomia % 2,7 handituko den bitartean.

Bilakaerari erreparatzen badiogu, Hezkuntzako aurrekontua duela 10 urte gastatzen zenaren azpitik dago. 2009an eta 2010ean 3,6 eta 16,4 milioi euro gehiago gastatu ziren 2018arekin alderatuta. Bestalde, 2018ko aurrekontua bi urte horietakoa adinakoa izateko BPGarekiko (BPGaren % 3,6ko adinako gastua egin zen, eta 2018an % 3,2koa aurreikusten da), 82,2 milioi euro gehiago gastatu beharko lirateke, hau da, 733,9 milioi euro.

Gastua Hezkuntzan (milioi euro eta BPGaren %) 2009-2018

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017*	2018*
Milioi €	655,3	668,1	634,7	553,6	563,2	570,4	584,5	597,5	647,0	651,7
BPGaren %	% 3,6	% 3,6	% 3,4	% 3,0	% 3,1	% 3,1	% 3,1	% 3,1	% 3,2	% 3,2

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

Hezkuntzako aurrekontuaren zati handi bat irakaskuntza pribatuari eta itunduari diru-laguntzak ematera bideratzen da. Hain zuzen, 651,7 milioietako aurrekontutik 131,6 milioi bideratuko dira honetara, guztiaren % 20,1a.

Azpimarratzekoa da Hezkuntza Departamentuaren aurrekontu osoa % 0,7 handitzen den bitartean (5,7 milioi euro), irakaskuntza pribatura eta itundura zuzendutako diru-laguntzak % 3,2 haztea, 4,2 milioi euro. Hau da, Hezkuntzako aurrekontuaren igoeraren % 73,6a irakaskuntza pribatuko eta itundua duten zentroetara doa.

**c) Gastua etxebizitza arloan**

Etxebizitza politika Eskubide Sozialetako Departamentuan kudeatzen da; zehazki, 43,7 milioi euro bideratu ditu lurzorua eta etxebizitza kudeatzera. Atal honen barruan, etxebizitza jarduketak egiteko diru-laguntzak eta sorospenak daude (26,6 milioi euro), bai eta etxebizitzaren alokairu publikorako diru-laguntzak ere (13,6 milioi euro); 30,2 milioi euro guztira.

Azken urteotako bilakaerak erakusten du 2015etik aurrera gastua hazi egin dela, 36,6

milioietako gastutik 40,2 milioietako aurrekontura 2018an. Hala ere, 2009ko etxebizitza gastua 2018rako aurreikusitakoa baino 14,6 milioi handiagoa izan zen. Honek BPGaren % 0,3ko partaidetza izatetik % 0,2koa izatera ekarri du.

*Gastu publikoa etxebizitza jarduketetan (milioika eurotan, BPGren %) 2009-2018*

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Diru-laguntzak etxeak alokatzen dituztenentzat	4,5	5,4	5,0	9,6	10,4	12,3	11,7	12,1	12,7	13,6
Diru-laguntzak eta sorospenak etxebizitza jarduketetarako	50,3	55,2	53,8	68,1	33,6	36,0	24,9	19,3	25,4	26,6
Etxebizitza jarduketak guztira	54,8	60,7	58,8	77,7	44,0	48,3	36,6	31,4	38,1	40,2
BPGaren %	%0,30	%0,33	%0,31	%0,42	%0,24	%0,26	%0,19	%0,16	%0,19	%0,20

*Iturriak: Nafarroako Gobernua, Nastat*

**d) Gastua Bermaturiko Errentan**

Bermaturiko Errentarako 95,8 milioi euro aurreikusi dira 2018an, 2017an gastatuko dena baino 0,3 gutxiago.

Bilakaerak 2015etik gastua % 31,3 hazi dela erakusten du (65,8 milioitik 95,8ra). Igoera hau borondate politikoaren ondorioa da. Ez dago zalantzarik oinarritzkoenak diren beharrak asetzeko gastua igotzea positiboa denik.

Baina tamalez ez da nahikoa. ELAk emana du Bermaturiko Errentaren inguruan daukan iritzia, eta nahiz eta gastua igotzea bide onetik doan aurrerapausoa izan, oraindik pauso gehiago eman behar dira.

*Gastua Bermaturiko Errentan (milioi euro) 2009-2018*

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
21,5	30,8	35,9	31,5	39,4	51,0	65,8	85,2	96,1	95,8

*Iturriak: Nafarroako Gobernua*

*\* 2017 eta 2018ko datuak Bermaturiko Errentarenak dira, gainontzekoak Gizarteratze Errentarenak eta Oinarritzko Errentarenak dira*

**4.7- Administrazioako langileak eros-ahalmena galtzen jarraitzen dute**

Nafarroako Gobernuak % 1,5eko soldata igoera proposatu du 2018rako. Honek suposatzen du Nafarroako Administrazioako langileek eros-ahalmena galduko dutela berriz ere, izan ere prezioen (KPI) igoera % 2koa izatea espero baita 2018an.

Proposatutako soldata igoera ez da nahikoa, eta gainera Madrileko politiken jarraipena egitea da, Nafarroako Gobernuak politika hauei aurre egiteko inolako asmorik ez duela argi geratuz.

Beste alde batetik, Comptos Ganberak 2016ko Kontu Orokorren txostenean azpimarratu du Administrazioaren 22.681 plazetatik 5.487 bete gabe daudela, eta bai Osasunbidean, Hezkuntzan edo Administrazio Nukleoan behin-behinekotasuna oso altua dela. Zentzu honetan, Comptos Ganberak hutsik dauden plazak betetzeko eta behin-behinekotasuna jaisteko neurriak hartzeko gomendatzen du. 2016an, bete gabe zeuden plaza guztien % 24, eta hauen % 63 behin-behinean beteta zeuden. Bilakaerak erakusten du, gainera, plaza hutsak eta behin-behinekotasunak gora egin duela.

Beharrezkoa da enplegu eskaintza publikoa egitea behin-behineko lanpostuak egonkortzeko eta suntsitutako lanpostuak berreskuratzeko. Gobernuak proposatutako plaza kopurua, Madril en ezarritako berritze tasaren arabera, ez da nahikoa inondik inora, eta enplegua prekarizatzen jarraitzea suposatuko du.